

Institutoko bi neska jazartuak izan ziren sare sozialeko argazki faltsu batzuengatik

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 18/01/2024

Iruñerriko 18 urteko mutil bat adimen artifiziala erabiliz institutuko bi ikaskide, bi neska, biluzik irudikatzen zituzten irudiak sortu eta zabaldu zituen.

Mutilak berak egin dioten epaiketa azkarrean aitortu duenez, bi ikaskideen hainbat argazki hartu zituen haien sare sozialetatik, eta adimen artifizialeko aplikazioak baliatuz biok biluzik irudikatzea lortu zuen, irudiok kalitate handikoak ziren, eta biktimak eta haien inguru gertuko pertsonak soilik jabe zitezkeen faltsuak zirela. Biktimetako batek sare sozialen bitartez irudiok jaso zituen, mezu iraingarriekin eta umiliagarriekin batera eta salaketa aurkeztu zuen. Geroago, beste biktimaren irudiak aurkitu zituzten eta hark ere salaketa aurkeztu zuen. Mutilak osotasun moralaren aurkako derrigortze edo koakzio delitua egotzita ezarri dio epaiak urtebeteko espetxe zigorra.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/institutoko-bi-neska-jazartuak-izan